



Prentsa oharra

EROSKI-K "RAPID" IZENeko BESTE SUPERMERKATU FRANKIZIATU BAT INAUGURATUKO DU EIBARKO AZITAIN AUZOKO AVIA GASOLINDEGIAN

- Komenentziako supermerkatua da, zeinetan kontsumitzaileak ordutegi zabal bat baitu urteko egun guztietan
- Familia baten hirugarren belaunaldiko gasolindegia da, eta pauso honekin, berretsi egin du etorkizuneko apustua
- EROSKI eta AVIAk sendotu egin dute EROSKI RAPID izeneko supermerkatu frankiziatuak hedatzeko hitzarmena

Eibar (Gipuzkoa), 2022ko urtarrilaren 27a.- [EROSKI](#)k frankizia erako beste supermerkatu bat inauguratu du gaur RAPID izenarekin, [AVIA](#)k Eibarko Azitain auzoan duen zerbitzugune historikoan. EROSKIren formatu komertzialetan berriena da RAPID, eta oso formatu komertzial lehiakorra da. Denda txiki batzuk dira, oso biztanleria dentsitate handia duten eremu urbano eta turistikoetan kokatuak.

Berregituratze sakona eginda, dendak 45 metro koadroko salmenta areto bat izango du, eta bertan 700 erreferentzia aurkituko dituzte kontsumitzaileek; gainera, labe propioa izango du, beti ogi eta opil erre berriak izateko, eta kafea hartzeko gune bat. Horrez gain, janaritan, edaritan, drogeriatan eta lurrinetan, ekoizle liderren markak ez ezik EROSKIren marka propioak ere baditu. Eibarko AVIA gasolindegia urteko 365 egunetan irekitzen du, astelehenetik ostiralera 06:00-22:00 bitartean eta larunbat, igande eta jaiegunetan 08:00-22:00 bitartean.

[AVIA klubeko bazkideek](#) abantaila hauek izango dituzte erosteko orduan: %2 ibilgailua hornitzeko, eta dendako erosketetan %5eko deskontua ondoko erosketatik edo horniketarik kontatzen hasita.

EROSKI eta AVIAk beren hitzarmena sendotu dute

EROSKI eta AVIAk sendotu egin dute hitzarmena, eta EROSKI RAPID izeneko supermerkatu frankiziatuak hedatzen jarraituko dute AVIA petrolio operadorearen zerbitzuguneetan, hitzarmen hau martxan jarri zenetik urtebete baino gehiago pasatu den honetan balantzea aski positiboa izan baita. Bi enpresak lankidetzan hasi zirenetik, hogeit hamar RAPID denda ireki dituzte AVIAren zerbitzuguneetan herrialde osoan.

Hitzarmen honek EROSKI RAPID komenentziako denden eredua hedatzen lagunduko du. Dagoeneko, berrogeita hamar dendatara hurbildu da. Hala, apustu

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



egiten jarraitzen du komenentziaren eta erosketa laster, erraz eta bultzadazkoaren arloko merkatu aukera honen alde.

AVIAri buruz

AVIA da Espainian petrolio operadore nagusietako bat: ia 200 zerbitzugune ditu, eta gasolioa banatzeko 35 biltegiko sarea, gasolioaren azken kontsumitzailea hornitzen duena, hala nola nekazaritzarako, automoziorako, industriarako eta berokuntzarako, ia-ia geografia osoa hornitzen duelarik. Horrez gain, AVIAk lubrikatzaileak saltzen ditu automoziorako eta industriarako, eta beste energia mota batzuk, hala nola biomasa eta bioerregaiak (PGL petrolio gas likidotua eta GGN garraiorako gas naturala). AVIA ez dago soilik Espainiako merkatuan; Europako marka ere bada joan deneko 80 urtean, eta 3.000 zerbitzugune ditu hamabost herrialdetan, denak ere operadore independenteak.

Kasu honetan, dagoeneko 70 urte pasatu dira kasik Casimiro Errasti 1954. urte inguruan zerbitzugune bat irekitzera ausartu zenetik. 1986an, beti nola hobetu pentsatuz, joera berriak zirela medio, AVIArekin elkartu zen, eta gaur egun Errasti familiaren hirugarren belaunaldiak harekin jarraitzen du negozioa eboluzionatuz.

EROSKIri buruz

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta liderretako bat Espainia iparraldeko merkatuan (Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan). 1.624 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash & carry-ak eta, horretaz gain, gasolindegia, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak ere bai eta bere online supermerkatua. Era berean, sei milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 33.000 bazkide kooperatibista, langile eta frankizia-hartzaile baino gehiago.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)